



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-02-09ko PREMIAZKO EZOHICO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko otsailaren bederatzian, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Itziar Arkonada Lizarraga andrea.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaidetokopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

BILKURAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.2 artikuluko b idazlerroan araututakoa kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Nahikoa arrazoi badaudela kontsideratuz, bilkuraren presazko izaera berrestea.

BIGARRENKO GAIA

**ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMA KO "OSTATU ZAHARRA"
TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA
EGITEA.**

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditentea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuela.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Lizitazio-iragarkia 2009ko martxoaren 4an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lehiakidek beren proposamenak aurkez zituzten. Inolako proposamenik jaso ez zenez, lizitazio hau hutsik deklaratu zuen 2009ko apirilaren 29n egindako udalbatzak.

Ikusirik, Udalak interesa duela Beizamako Ostatu Zaharra tabernaren ustiapen eskubidea esleitzeko, honek herrian betetzen duen xedea funtsezkoa deritzolarik.

Ikusirik, Beizamako ostatu-zaharrak, ostalaritza ekipamendua izateaz gain, zerbitzu publiko izaera duela eta zentzu honetan, ostatuak, alde batetik, nagusiki herritarren zerbitzuarekin lotura duela, eta bestetik, Udalak sustaturiko jardueren azpiegitura lagungarria izango dela, Udalak hala erabakiz gero.

Ikusirik, Udal honetako Ezohiko Osoko Bilkurak 2010eko urtarrilaren 18an egindako batzarrean erabaki zuela, besteen artean, Beizamako Ostatu Zaharra ustiatzeko eskubidearen emakida Administrazio kontratu bereziaren bidez egiteko espedienteari hasiera ematea, jardunbide negoziatu eta publizitaterik gabekoaren bidez; era berean, aipatutako jardunbidea arautuko duten Baldintza Administratibo, Ekonomiko eta Juridikoen Orriak onartu zituen.

Ikusirik, kontratazio mahaiaren akta.

Kontuan hartuz, besteen artean, urriaren 30eko 30/2001 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak eta apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.1.artikuluan xedatutakoa, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Kontratazio mahaiaren erabaki proposamena berea egitea eta Idoia Urtuzaga Otaegiri eta Janire Ugartemendia Urtuzagari esleitzea Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubiderako kontratu berezia, behin behineko izaeraz, beraiek aurkeztutako proposamenean oinarrituz.

Bigarrena.- Errekeritzea erabaki honen berri izan ondoren, 15 laneguneko epean, espedientera ondoko hauek ekartzeko: EJZn alta eman izanaren egiaztagiria; behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria; eta autonomo eraentzan alta eman izanaren egiaztagiria.

Hirugarrena.- Nahiz eta oraindik behin-behineko esleipena besterik ez izan, Ostatu Zaharreko eta etxebizitzako giltzak lagatzea, zerbitzuaren irekierarako beharrezkoak diren prestakuntza lanak aurrera eraman



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ahal izateko, era honetan, zerbitzua abian jartzea erraztuko baita.

Laugarrena.- Azpimarratzea, giltzen lagapenak egiteak ez duela adierazten ez behin betiko esleipena egin zaienik, ez kontratua sinatu denik.

Bosgarrena.- Interesdunei jakinaraztea dagozkion iragarkiak jarritz.

Seigarrena.- Hamabost lanegun igaro ondoren honakoaren jakinerazpenaren biharamunetik kontaktzen hasita eta, esleipendunek, eskatutako dokumentazio eta baldintza guztiak bete badituzte, esleipena behin betikoa bihurtuko da gainontzeko egintzaren beharrik gabe.

Zazpigarrena.- Esleipena behin-betikoa bihurtu ondorengo 10 lanegunen barruan, esleipena formalizatuko duen kontratua sinatzea.

Zortzigarrena.- Alkatea eskuordetzea dagokion kontratua eta beharrezkoak diren izapideak aurrera eramateko sinatu beharko diren dokumentuak sinatzeko.

Bederatzigarrena.- Esleipendunari dagozkion iragarki gastuak ordainaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 19:15etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.